Continues esperant
a les ales de l'hivern,
els somnis esbatanats
en el son càlid de l'aire

collint flors amb un somriure
satisfet al fons del cel
i fins i tot l'oreneta
ve a la vora del bressol

capritx de llunes daurades
i aire rosat a les venes,
que la son t'agafi a coll
i et dugui a cavall dels núvols

nin-non et durà la son
a les portes de la boira
com quan et torni la mare
en un bell dia plujós.

1991

LA PORTA OBERTA EN EL CEL, I AIXÒ

I

Quan ens parlen d'aquest país
ens mostren
l'interior de les esglésies, ple de gom a gom.
 les dones a baix
 “anyell de déu que lleveu el pecat del món”
 i els homes a dalt
 “tingueu pietat de nosaltres”
 canten, i a cada
 “doneu-nos la pau”
als llavis de cadascun
mor un somriure.

II

rèquiem diu el vent.
 em desplau la terra
 que no brinda
 xàfecs traïdors d'estiu;
 abraço els àlbers
 que potser donaran forma
 al meu darrer cruel estatge
rèquiem diu el vent.

III

la rojor de la rosa
és més delicada
de nit que no de dia

la por de la pluja
és més humida
de nit que no de dia

la tremolor de la carn viva
és més punyent
de nit que no de dia

l'alenada de la fúria
és més roent
de dia que no de nit

IV

segons les estadístiques oficials,
al País Basc interior
hi ha més ovelles que habitants
per això
el formatge
és or blanc.

i a mi no m'agrada el formatge.

segons les estadístiques clandestines
al País Basc
hi ha més policies que ovelles
per això
la pau
està assegurada

i a mi no m'agrada la pau.

V

les veus plenes de felicitat tot al voltant
m'arrossequen
cap a l'erm desolat de la meva solitud

no woman's land gegantí.

VI

a l'altra banda de la frontera
hi ha la marca de la fràgil motivació per viure.
a l'altra banda de la frontera
hi ha el camí de les fermes raons per desesperar.
a l'altra banda de la frontera
hi ha el record del petó que et vaig robar.

a l'altra banda de la frontera
hi és tot
i no hi ha res.

VII

cada nit
somnia
la mateixa ciutat.
cada nit
endolceixo
les afliccions maldestres
arrapada
a la teva ombra
adormida.
cada nit
a les andanes del metro,
com a les velles cançons,
repeteixo
que t'estimo.

i tu
cada nit
em duus a veure
gàbies d'ocells exòtics
posats a vendre
tot dient:
 mira
 com ens hauríem
 de veure.

1986

Itxaro Borda. POEMAS ESCOLLIDOS



Traducción: Isaac Xubin



Nós

Somos un accidente na vida de alguén,
Un enorme desacerto inevitable,
A poza de lama despois da bategada
Ou a aguda pedriña do carreiro.

Ao non teren risos, ollos ou berros
Sen nós o mundo podería ser o mesmo:
Camiñamos en balde coas mans atadas,
A feitura da crenza, o cansanzo da fe...

Apañamos os refugallos dos demais,
E os anos tornan nunha cinsa
Que apagan a chama esta da ledicia,

E dende o derradeiro laio do noso peito,
Erguido na borralla, o noso peso esgrevio
Axiña nos filla a memoria do futuro.

1982

MILIA LASTUR REVISITED

cos berros dos mortos cinguidos á túa boca,
como poderás atopar o teu auxilio?
eu amareite, non marches Milia,
fica comigo e bebamos o viño vermello...

roubaremos as mazás das leiras farturentas,
gardarémolas nos currunchos dos traxectos.
esquece, por favor, as matanzas vellas
e as cantigas de lume no po dos camiños.

deitarémonos logo as dúas
a ollar a danza nocturna das sete sombras
no leito de amor da herba húmida

u-la pedra? U-la fría terra?
para poñer o pranto en dúbida,
non temas, amareite sempre Milia.

1986

MERGUEZ BLUES

rodeados do recendo a Merguez eramos máis de mil
baixo a chuvia
e eu entre todos, meu amor, desesperada na procura túa
onde estabas
quizais tras o húmido pano vermello
da revolución devecida?

nós amantes feis da común miseria
imaxinabamos a cidade en chamas
famentas de amor, en estado de sitio, con pedras nas mans
as barricadas
e eu entre todos, miña amiga, desesperada na procura túa
baixo a chuvia

a ilusión de entrar na resistencia
o desexo de xustiza
cando volveremos á aldea?
cos ósos feitos rachas só unha palabra tiñamos
na boca: loita
e eu entre todos, meu amor, desesperada na procura túa
baixo a chuvia

fermosos maios das nosas rúas

1988



*chove, é o deserto, o lume apagado
que fazer desde maos, cumplices do sol*
E. de Andrade

Aínda vou á praza Du Bellay os domingos
non sei na procura de que ou quen, pero
vou, entre a xente apresurada que me
golpea sen vergoña; quería embebedarme
nas augas da fonte da fría saudade
para limpar da cachola os maos sonhos da noite
antes de que a seque o alento temperado do día

encho os escondedoiros dos amortuxados xeos
coa crueldade da canción so far away from me
para que a fin do mundo nunca pense
que a ledicia é doada abondo, tan raro atopar
nas rúas abertas as pegadas cansas
do amor secuestrado saloucando en silencio
perante a morte, nos bordos das bágoas

achégase a ausencia coas ás abertas
para remexer na carne podre, por culpa
de xuño, á hora en que espertan
os nenos durmidos, esluímonos todos na bátega
o ruído afiado do metal destrúe
as memorias mortas, para losquear
mañá os desexos de aceiro, porén

nos serven corazóns de álamos brancos
nos restaurantes escuros, rodeados de psicólogos
que controlan as almas, prohibénnos pensar
nos ríos que pasan ao carón das casas; sexa como for
transfórmannos en produtores da riqueza económica
e perdemos dez puntos imaxinando
andoriñas a louvar o ceo.

cando só nos queda unha listaxe de humillacións
para esquecer as miradas máis duras.
dános gana de chorar ao velas chegar
polos camiños de ferro dos trens, na sede de maternidade
do seu balbordo, preguntando ás flores dos currunchos
poder fartar a pantasma co sangue.húmido
que pasa pola peneira da esperanza

se cadra saben por que non crecen vermellas
as rosas na terra negra da amnesia,
por que o sol non toma un descanso
os mércores na plumaxe do rousinol,
por que a carraxe que temos nos labios
non se transforma en fermoso poema ende mal
por que camiñamos polo reino do baleiro

cando as estrelas arrandean baixo a ponte
da vergoña, adiviño as mans miñas ateigadas
de mans, porén as miradas foxen ao serán
obrigadas a fartar a fame dos voitres
e non te podo atopar namentres estás
pendurada nas fronteiras da lembranza,
coma bolboretas multicolor, xa daquela lonxano paxaro

e se me afoutase a alonxarme da praza Du Bellay
medraría o degoxo de me transformar
en fino po, e que o vento me levase
nas ás da alborada cara ao deserto nu
onde a pregaria é pregaria, compadécete de nós
para eu poder escoitar o campo alegre
que tolea coas herbas recendentes co canto do cuco

1991

TAREFA PENOSA

Escribir é unha tarefa penosa,
capturar mediante as palabras
os intres barulleiros
da vida mineral que marcha desangrándose,
debullar as xigantes canseiras
ou lembrar
a cabina telefónica da esquina da rúa
 é unha tarefa penosa.
 por desgraza a linguaxe, decote gramática erma,
é a nosa dor, de amor o noso dubidoso folgo,
da liberdade o aguzado coitelo,
e sabemos
que sempre
que pousamos desleixadamente
a palabra no papel
no canto de cambiar o mundo
somos nós
os convertidos
sen rumbo fixo
até transmutar
nun buraco negro.
 desgraciadamente
 deséxote adobiada de degoiro
 penosa tarefa.

1998

Na véspera da mañá aquela que nevou
busquei os teus beizos
na noite e malia a friaxe esgrevia
durmín sen atopalos
morte
na véspera da mañá aquela que nevou
non me decataba
morte
que o futuro había rachar mañá mesmo
nos espellos da saudade
na véspera da mañá aquela que nevou
coma paxaros famentos nos beirís das fiestras

1991

Cando te sintas a máis desgraciada
do mundo
no autobús
 direiche que os desexos que esgazan
 o ventre
 son crueis
direiche que a necesidade da liberdade
 agarda a cada quen
 no cumio das montañas máis humildes
direiche despois
 –a túa man na miña–
que un día chegará a luz da alborada
 que acougará
 as mañás,
 a bátega de chuvia con recendo a neve
que un día poderá achegar
 con paso lixeiro
 a lapa do amor.
cando te sintas a máis desgraciada
do mundo
 no autobús.

1991

Estás sempre agardando
nas ás brancas do inverno
no intre largo do sono
no soño quente do vento

desexando o fondo do ceo
recollendo as flores en risa
do berce este ao carón
tamén se achega a andoriña

na teima das lúas douradas
co aire rosa nas veas
que o sono te leve deitado
enriba das nubes de mel

o sono transporta o meniño
ás portas das néboas belidas
que tamén volverá a nai
un bo día de chuvia

1991

LA PORTA OBERTA EN EL CEL, I AIXO

I

sempre que nos presentan este país
amósannos
os interiores ateigados das igrexas,
 no intre en que abaixo
 cantan mulleres
 “que quitas o pecado do mundo”
 e os homes nas galerías
 “señor, ten piedade”.
 cada vez que pregan “dános a paz”
morre un riso
nos labios das xentes deste pobo.

II

requiem di o vento
 non me gustan as terras
 que non ofrecen
 renartes chaparradas de verán.
 aloumiño os álamos brancos
 que darán feitío
 a miña desapiadada morada derradeira
requiem di o vento

III

a rosa vermella
é máis frágil
de noite ca de día

o medo da chuvia
é máis húmido
de noite ca de día

o arreguizo da carne
é máis preciso
de noite ca de día

o folgo da carraxe
é máis anoxadizo
de noite ca de día

IV

segundo as estatísticas oficiais
no interior do país vasco
hai tantos seres vivos coma ovellas
 por isto
 o queixo
 é ouro branco.

e a min non che me gusta o queixo.

segundo as estatísticas clandestinas
no País Vasco
hai tantas ovellas coma policías
 por isto
 a paz
 está asegurada.

e a min non che me gusta a paz.

V

nas bocas inmensamente ledas dos que me rodean
podo medir
o deserto magoado
da miña propia soidade

unha enorme no woman's land

VI

ao outro lado da fronteira está
a marca do feble pretexto de vivir
ao outro lado da fronteira está
o camiño das fortes razóns para o desespero
ao outro lado da fronteira está
a lembranza do beixo que che ripei

ao outro lado da fronteira está
todo
e non está nada

VII

todas as noites
teño un soño
coa mesma cidade.
todas as noites
acougo
os laios zoupóns
pegada
á túa sombra.
todas as noites
nas gorxas do metro
repítoche
que te quero
coma unha vella cantarea.

e ti
todas as noites
lévasme a ver
os paxaros exóticos
que están á venda nas gaiolas
e disme:
 mira
 en que
 non temos que nos converter.

1986

ITXARO BORDAREN POEMA HAUTATUAK ITZULGAI

IDAZLEA ITZULTZAILEEN LANTEGIAN - 2010

GASTEIZEN, 2010eko IRAILAREN 7tik 9ra

Itxaro Borda eta lau itzultzaile haren poema hautatu
battuk itzultzen eta emaitzak eztabaidatzen ariko dira
hiru egunez.

Itzulpenak:

- Haizea Parot (frantsesa)
- Pau Joan Hernández (katalana)
- Isaac Xubin (galegoa)
- Manu López Gasen (gaztelania)

JENDAUERREKO EKITALDIA

2010eko irailaren 9an, ahateko 19:00etan,
Ignaciò Aldecoa Kultura Elxean (Gasteiz).

Mintegiaren azken egunean, parte hartzaileek
esperientziaren berri emango dute mahal-inguru batean.
Hurrena, Itxaro Bordaren zenbait poema
lau bertsioan entzuteko aukera izango dugu.

Babesleak:

ERIKO MUGLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERIKO MUGLARITZA
GOBIERNO VASCO

Logotipoa



Arribas Pasa
Alfonsa
Diputazio
Nolan da Alde

www.arieta.net

Antolatzaile:

EIZIE
Eusko Itzultzaile, Kultura eta
Interpretazio Elkartea

«Itxaro Bordaren poema hautatuak itzulgai» lantegiaren historia

MANU LÓPEZ GASENI

«Idazlea itzultzaileen lantegian» bigarren urtez Euskadiko Literatura Saritik aske antolatzeko garaia iritsi zenean, behiala baino zeregin bat gehiago genuela ikusi genuen: idazlea aukeratzea. Eta iaz Karlos Linazasoro hartaratu genuen arte ibilitako bidea berribiltzen hasi ginen. Zenbat arazo ematen dituen askatasunak! Ohartu ginen poesia behin ere landu gabe genuela, eta hura izan zitekeela bide bat. Emakume idazlerik ere ez zela guretik pasatu jabetu ginen gero, eta hara beste hari bat. Iparralde deitzen dugun lurralde horretako jenderik ere inoiz ekarri gabekoak ginela ikusi genuen hurrena, eta horratx hurrengo izpia. Protagonista lesbiana bat duten detektibe nobelak «kometitzen» dituen iparraldeko emakume poetarik ere inoiz ez da gure lantegitik pasatu, eta, azkenean, hitzetik hortzera etorri zitzaigun hasieratik beretik buruan izan genuen izena: Itxaro Borda. Idatzi genion, ezetz esango zigun beldurrez, baina astro-elkartzeak alde genituen eta baietz erantzun zigun («ahal baldin badut –lanarengatik– eskatzen didaten edozer izkiriartzen dut, eskatzailea edozein dela» delako esaldia baionar idazlearen apaltasun-eskuzabaltasun erakusgarria besterik ez da).

Poesia nahi genuenez gero, eta lantegia bideratzeko ardura hartuta, Itxaroren obra birpasatu nuen, noiz nostalgiaz, noiz uste-kabez, bi aldiz ibai bera ikustea ezinezkoa izatea ez baitzaio beti ibaiaren mudantza-abileziari egotzi behar, begiralearen begiek une bakoitzean duten zorrozatasuna kontuan izan gabe. Gainera, lante-

gia gogoan, aukeratzeko irizpideek arau berezi batzuk bete behar zituztela iruditu zitzaidanez, lehentasunak eta zaletasunak uztartu nituen. Ez zen batere zaila izan (aukeraketa-mahai gaitzagoetan egona naiz, zinez). Azkenean, askotariko asmo eta luzerako bederatzi poema aletu nituen: «Gu», «Milia Lastur revisited», «Merguez blues», *Oraindik nabil Du Bellay plazan*, «Ardura dorpea», «Elurra egin zuen...», *Munduko malerusena...*, *Neguairen hegaletan...* eta «La porta oberta en el cel, i això». Iturriak, berriz, *Bizitza nola badoan* (Maiatz, 1984), *Bestaldean* (Susa, 1991) eta *XX. mendeko poesia kaierak*. *Itxaro Borda* (Susa, 2000) izan ziren.

Hizkuntzak eta itzultzaileak aukeratzea izan zen hurrengo zeregina: aurreko urtean abiatutako tradiziotxoari jarraituz, idazleari berari frantseserako autoitzulpena egin zezan eskatu genion; frantseseko beste itzulpen bat behar genuen, harekin kontrastatzeko, eta Haizea Parot ados egon zen. Aukeratutako beste hiru hizkuntzak galegoa, katalana eta gaztelania izan ziren, eta horretan aritu ginen Isaac Xubín, Pau Joan Hernández eta Manu López, hurrenez hurren.

Eta iritsi zen 2010eko irailaren 7a. Aurkezpenak egin genituen eta, harako hura ispiluaren bestaldera bezala, hala barneratu ginen Itxaro Bordaren poemen mundura.

Poemak banan-bana landu genituen eta, bakoitzarekin hasi aurretik, idatzia izan zeneko testuingurua ematen zigun Itxarok; izan ere, esan zuen legez, bere ustez, poemak argazkien parekoak dira.

«Gu» 1984an idatzi zuen eta klase borroka, gehiengoak eta guttiengoak hartzen zuen hizpide. Beste gai batzuen artean, bat aipatu zuen: badela euskal klase bat, apaizez eta notableez osatua, gainontzeko euskaldunak zigortzen omen dituen «egiazko euskar» ez mintzatzeagatik.

«Milia Lastur revisited», berriz, «Milia Lastur» eresia ezaguneko elementu zenbaiten berziklapena da. Hitanoa erabili zuenez gero, itzulpenetan informazioa galtzen dela dio, eta berak egindako

itzulpenean frantses entzuleen beharretara moldatu dituela hainbat gauza.

«Merguez blues» delakoa maiatzaren 1eko ospakizunaz aritzen da eta Parisen kokatua dago. Manifestazioaren ibilbidean, Bastille eta Republique artean, alboetan jartzen diren merguez saltzaileek eman diote izena poemari.

Oraindik nabil Du Bellay plazan izeneko poema *Bestaldean* bildumakoa da, titulurik ez du ordena alfabetikoan idatzitako poemak biltzen zituelako. Parisen idatzia. Hizkuntza-eldarniotzat definitzen du: puntuaziorik gabe, ideiak bata bestearen atzetik jarrita burura zetozen bezala. Plaza Paris erdian dago, Les Halles-en. Du Bellay, berriz, XVI. mendeko frantses idazlea izan zen, lehena frantsesez idazten, Etxepareren parekoa beraz. Baliatzen duen zazpi lerroko ahapaldia berria da, Itxarok berak sortua.

«Ardura dorpea» Zuberoan idatzia da, bost urtez Mauleko ikastolan arduradun ibili zen garaian, eraikin berria egiteko ahalginetan. Orduan, idaztea, militantziaren eraginez, derrigorrez bereganatu behar zuen ardura zen.

Elurra egin zuen... izeneko poema ordena alfabetikoan idatzitako poemen bildumakoa da. Parisen elurra egin zuen goiz batez idatzia, Baionarako lan-lekualdatzearen berri idatzi jaso berritan. Orduan hasi omen zen artean utzi gabeko hiriarekiko nostalgia.

Munduko malerusena... ordena alfabetikoko bilduma hartakoa da, orobat Parisen idatzia. Amaia Lasaren poema baten oihartzuna da, omenaldi moduko bat.

Neguaeren hegaletan... ere *Bestaldean* liburukoa da. Seaska kantatu bat da eta bi aldiz iza da musikatua.

«La porta oberta en el cel, i això» Iparraldeko militarizazioaz aritzen da, batetik GAL taldeak, bestetik frantses polizia Philippe Bidart-en bila zebilen... Egoera itogarri hartan, Itxarok Hegoaldean bilatzen zuen babesa, *Basilika* idazten ari zen bitartean. Poema Bartzelonan amaitu zuen, eta katalana ikasteko erosi zuen ebanjelio batetik hartu zuen izenburua.

Itzultzaile bakoitzak lantegian adierazitakoen arabera eta egindako itzulpenetatik ateratakoak ikusirik, joera nagusi eta ondorio oso orokor batzuk ateratzen saiatuko naiz. Denak ez dira begien bistakoak, lantegiko eztabaiden ondorioz itzulpenek nolabaiteko konbergentzia izan zutelako.

Frantsesera egindako bi bertsioren artean, nabari da Itxarok askatasun gehiago hartzen duela, libreago itzultzen duela. Itxarok baliagarri jotzen du itzulpenak jatorrizkoari egiten dion ekarpena eta, gainera, poema batzuk errezitaldietan frogatuak zituen; eskarmentua du, beraz, entzuleen beharretara egokitzen. Haizea Parot itzultzaile gazteak lehenengoz egiten zion aurre poemak itzultzeari, eta sen handiz zehaztasunaren bidetik jo du, oso baliokidetza doituak sortuz.

Galegozko bertsiotan, oro har, jatorrizkoen pareko emaitzak lortu ditu «poetikotasunaren» aldetik, batez ere erritmoaren eta aliterazioen alorretan. Adibide bat jartzearen, *Neguairen hegaletan...* seaska kantua bikain itzulita dago aipatutako alderdiei dagokienez.

Katalanezko bertsiota, berriz, komunikatibotzat jo daiteke: gehiago heltzen dio jatorrizkoaren esanahiari eta poetikotasunari uko egiten ez badio ere, zertxobait galtzen duelakoan nago azalpenezko gehikuntzak egiteko joeragatik.

Gaztelaniazko itzulpena epaitzeko ez naiz egokiena. Esan dezadan hautaketako bi sonetoak («Gu» eta «Milia Lastur revisited») neurtitzetan eta errimatuak ematen saiatu naizela. Euskal bertsioren trinkotasunari aurre egiteko, berriz, hamaika silabako lerroaren ordeztu alexandrino deiturikoa baliatu dut, silabaren baten gora behera, gaztelaniaz arnasa luzeagoa eman ahal izateko. Horrelako esperimentu batean, dudarik ez da, informazioa galtzen da eta itxura zurrina ezartzen zaio poemari. Hala ere, jatorrizkoen sor-kuntza prozesuetan antzeko zerbaite gertatzen delakoan nago.

Bertsokerak errespetatzen saiatu gara itzultzaileok, baina, Itxaro zangalatrau zalea izanik, horrelakoetan nork bere interpretazioa egin du.

Hiperbatoien tratamenduan, berriz, askotariko joerak ikus daitezke, euskararen eta beste erromantzeen egitura sintaktikoak muturrekoak direla jakinda ere. Horri eranstean badiogu Itxaro Bordak zenbaitetan erabilitako alboratzea, itzultzaileok zailtasunak izan ditugu aldaera batzuk emateko orduan. Adibide gisa, *Oraindik nabil Du Bellay plazan* poemako azken ahapaldia har daiteke:

eta Du Bellay plazan ausartzen banintza
hauts arina bilakatzeko gogo handituko
litzaidake, goizetako argitasun ahuletan
haizeak nezan eraman otoitza otoitz den
eremuaren biluziraino, urrikal zakizkigu
belarrak usantsu zoratzen diren zelaiak
kukuaren kantuz lorios entzun ditzadan

(ITXARO – autoitzulpena)

Et si j'osais, sur la place Du Bellay, grandirait
En moi le désir de me changer en cendre légère
Qu'aux matins de faibles lueurs le vent emporte
Jusqu'à la nudité du lieu où la prière est prière,
Prends pitié de nous, que j'entende enfin
Le bonheur des plaines aux herbes parfumées,
Rendues folles par le chant du coucou.

(HAIZEA PAROT)

et si je me risquais, sur la place Du Bellay
mon envie grandirait de devenir fine poussière,
pour qu'aux faibles lueurs de l'aube le vent m'emporte
jusqu'à l'étendue nue où la prière est prière,
aie pitié de nous que j'entende le bonheur
au chant du coucou les plaines éperdues
du parfum des herbes

(ISAAC XUBÍN)

e se me afoutase a alonxarme da praza Du Bellay
medraría o degoxo de me transformar
en fino po, e que o vento me levase
nas ás da alborada cara ao deserto nu
onde a pregaria é pregaria, compadécete de nós
para eu poder escoitar o campo alegre
que tolea coas herbas recendentes co canto do cuco

(PAU JOAN HERNÁNDEZ)

I si gosés d'allunyar-me de la plaça Du Bellay
més creixeria el desig de convertir-me en pols lleugera,
perquè en la llum pàl·lida de l'alba el vent se m'emportés
fins a l'erm més despullat, on la pregària es fa pregària,
tingueu pietat de nosaltres, per poder escoltar
com embogeixen els camps amb les herbes aromàtiques
acompanyats pel cant del cucut.

(MANU LÓPEZ)

y si me aventurara a alejarme de la plaza Du Bellay
crecería mi deseo de convertirme en polvo
leve, para que con la débil luz de la mañana
el viento me llevase al territorio desnudo
donde la plegaria es plegaria, apiádate de nosotros
para que escuche los campos que enloquecen dichosos
con las hierbas aromáticas acompañados del canto del cuco

Kultura-baliokidetzak emateko modua ezinbesteko atala izaten da lantegiaren deskribapenetan. Horietako asko nola eman erabakitzeo, askotan Itxaroren azalpen argigarriak behar izan genituen. Batzuk aipatuko ditugu hemen.

Lehenengoan bi arazo elkartzen dira: batetik aditzaren elipsia eta bestetik «herri» hitz polisemikoaren esanahi zehatza, kasu

bakoitzean. «Merguez blues» poemako hiru lerro dira: «erresistentzian sartuak ginelako irudipena / justizia nahia / noiz herrirako?». Itxarori esker «jaioterri» esanahiarekin erabili zuela jakin genuen, eta hala eman dugu. Beste arazoa esan gabe dagoen aditza da, ematen baitzuen justiziaz ari zela, baina ez omen zen hala. Gauzak horrela, Itxarok honela eman zuen: «Nous pensions être entrées en résistance / soif de justice / a quand le retour au pays?»; Haizeak, honela: «Nous voyant entrés en résistance / soif de justice / retour au pays?»; hona hemen Isaac-en bertsioa: «a ilusión de entrar na resistencia / o desexo de xustiza / cando volveremos á aldea?»; Pau Joan-ek: «la il·lusió de la nostra resistència / l'ànsia de justícia / quan tornarem a casa?»; eta Manuk, azkenik: «la ilusión de formar parte de la resistencia / clamor de justicia / ¿cuándo regresaremos a casa?». Ikusten denez, Haizea izan da elipsiari men egin dion bakkarra.

«Herri» hitzaren esanahi arazoa «La porta oberta en el cel, i això» poeman topatu genuen berriro. Izan ere, «euskal herri barnean» delakoan, «Iparraldeko barne aldea» esan nahi da, kostaldea ez dela, alegia.

«Milia Lastur revisited» poeman eresiako «ardao gorria» aipatzen da, diotenez odolaren metafora gisa. Nola eman, orde? Hara: «vin écarlate» (Itxarok), «vin rouge» (Haizeak), «viño vermello», «vi roig» eta «vino rojo». Bistan denez, ez datoz guztiz bat enologo eta enparauen sailkapenarekin.

«Ardura dorpea» izeneko poeman, berriz, mintzairaz ari dela, «maiz adiztegi antzu» dela dio poetak. Bada, Itxaroren esanetan, «adiztegi» zentzu etimologikoan aukeratu zuen, «conjugaison» adierazi nahian, alegia. Baina itzultzaile guztiek ez dute zentzu hori errespetatu: «souvent grammairre stérile» (Haizeak) eta «decote gramática erma» (Isaac-ek).

Neguaeren hegaletan... seaska kantuan bada haur hizkerako esapide berezi bat, «ninano bubak darama», hain zuzen ere, Haizeak hasieratik ulertu zuena baina besteok zertxobait zoratu ginetuena. Hona azken emaitza: «dodo emmène bébé» (Itxarok), «dodo

porte bébé» (Haizeak), «o sono transporta o meniño», «nin-non et durà la son», «el sueño conduce al niño».

Aipatuko dudak azken kultura-baliokidetza «la porta oberta en el cel, i això» poemakoa da. Azken atalean «kairoletan salgai dauden / txori exotikoen / ikustera naramazu» esaten da. Bartzelonako Rambletako eszena bat omenenez, Pau Joan-ek azaldu zigun kiosko moduko batzuetan jartzen direla txoriak salgai (eta berehala topatu zigun horren argazkia interneten). Azkenean, hona hemen itzulpenak: «tu m'emmènes voir / les oiseaux exotiques / en vente dans leurs cages» (Itxarok), «tu m'amènes voir / des oiseaux exotiques / vendus en cage» (Haizeak), «lévasme a ver / os paxaros exóticos / que están á venda nas gaiolas», «em duus a veure / gàbies d'ocells exòtics / posats a vendre», «me llevas a ver / los pájaros exóticos / a la venta en sus jaulas».

Irakurleak ondorio gehiago (edo desberdinak) atera ditzake poema guztiak irakurri eta konparatuta. Nire aldetik, hemen amaitzen da uda amaierako lantegi izeneko lagunarte eder haren kontakizuna.

OFF-eko mintegia

ITXARO BORDA

Gasteizeratzea ederra zen. Etxegarateko lainoak zeharkatuz. Bide inizatiko baten segitzea bezala. Gutariko bakarrek ez zekiten zer zen eta nola funtzionatzen zuen itzultzaile mintegi batek. EIZIEko antolatzaileen deiari itsura baiezkoan erantzun ote genien? Dena dela, Florida parkeko Ignacio Aldecoa kultur zentroan biltzen ginenak lehen aldikoz gurutzatzen ginen. Hiru egun bagenituen elkarren ezagutzeko.

Orain ordenadore eramangarriekin lanean hasi aurretik beti sareko konekzioaren arazoa agertzen da. Buruhauste zenbait gora-behera konpontzen ere da nahikoa laster. Makinak piztu eta mahaiaren inguruko kideek beraien burua aurkeztu zuten: Haizea Parot Baionakoa, Manu Lopez Gaseni Barakaldoko idazlea, Isaac Xubin A Coruñako irakaslea, Pau Joan Hernández katalana, Itxaro Borda hiru egunez jorratuko ziren olerkien egilea eta Aran Royo egonaldiaren alde pratikoen arduraduna –eta benetan diotsuet, ederki lortu zuen.

Frantseserako autoitzulpena orraztu zuen Itxaro Bordak –ez erraz, bere erranen arabera. Baina gainerakoek ez zuten *zubi* hori baliatu, jatorrizko hizkuntzatik abiatu baitziren. Poesia bakoitza zirikatu zen, tolestu zen, kitzikatu zen, zitzikatu zen, misterioaz biluzi zen, azkenean bost hizkuntzetan uler eta irakurgarri gera zedin. Horretarako, sarean eskaintzen diren hiztegiak eskura behar ziren, agudo eta zehatz. Idazleak berak, naski, anitz ikasi du itzultzerako orduan. Haizea, Pau Joan, Manu eta Isaak-en baliabideak

erabiliz ekingo dio jada Maria Merce Marçalen poemak euskara-tzeari etxeratuko denean.

Ignacio Aldecoa kultur etxeko aretoan, hondar arratsean, ikusgarria eskaini genuen. Poesia irakurraldia zen funtsean, bakoitzak bere mintzairan. Galegoa, katalana, frantsesak eta gaztelelania nahasten ziren; ahotsak, taula gainean egoteko moduak, guztiok ez baigenuen ohiturarik horretarako. Jende multxo polita hurbildu zitzaigun: adiskideak, lagunak, poesia entzun nahi zuten ezezagunak. Bazen tokia. Floridako parkeko *lunchean* konturatzen ginen itzulpenaren garrantziaz: itzultzea, arrotz zaizkigun eleen argira ekartzea da. Itzultzailerik gabe ez da elkarrizketarik, entelegatzerik, bakerik, literaturarik, harreman sozialik.

Lan egin genuen asko. Plazer hartu ere Gasteiz ez baita jagoitik Potato taldeak duela hogeita bost urte abesten zuen *capital artificial de un país singular* hura. Bazkal eta afal orduetan Viña Ane Errioxako ardoz eta *goxua* deituriko postrez asetzen ginen, Kutxi karrikako Alacena eta La Riojana artean zegoen balizko tunelaz Rafa zerbitzariak gezurreztatu zizkigun leiendak moldatzen genituen –Pau Joane aitortu berri zigun *Millenium* sailaren hirugarren alea katalanera pasatu zuela– eta Iñaki Frieria idazle-itzultzailearen gonbitari erantzunez Legebiltzarra bisitatu genuen. Zinez interesgarria herritarrontzat.

Ostegun gauean Dublineko egutera nagitu ginen. Partitzeko tenorea zen batzuentzat. Iban Zaldúa, Gerardo Markuleta, Rikardo Arregi, Mikel Ayerbe, Manu López eta bertaratuek handizki frogatzen zuten orokorki Gasteiz jagoitik EH-ko hiriburu kulturala bilakatzen ari dela.

Itzultzaileei esker ala?

GEUK

Lantegikideak

ITXARO BORDA : BIOGRAFIA, DONA JAKUETIK

1959an sortu naiz Baionan (Lapurdi). Oragarreko laborari alaba bat naiz. Euskaldun zaharra, baina eskola frantsesean sartu eta hizkuntza aherentzaz zidaten. Hamabi urteetan, jada idazten nituela olerki laburrak erdaraz, euskaraz behar nuela iritzi eta hizkuntza berreskuratzeari lotu nintzaion, bakarrik, garai hartan zeuden hiztegi eta gramatika apurrekin. Horregatik daukat mintzaira hain hezkaitza izkiriaterakoan.

1974tik aitzina *Herria* astekarian agerrarazten nituen bertsoak eta artikulak. Orduz geroztik ez naiz sekula gelditu. Gaur egunero publikatzen dut zutabe bat *Berria* egunkarian. Lehen liburua 1984an plazaratu nuen sortu berri genuen Maiatz elkarte literarioaren eskutik. Orain arte, poesia eta prosa artekatuz, hamabost bat lan eman ditut argitara Maiatz, Susa, Txertoa eta Alberdaniari esker. *Ezer gabe hobe* da 2009ko ene azken nobela.

Amaia Ezpeldoi detektibe ruralarekiko lau elaberri kometitu ditut halaber, laurak Susa argitaldarian. Pertsonaia horren bidez Euskal Herria nola bizitzen, maitatzen, erabiltzen eta pairatzen dugun/dudan erakutsi nahi dut, hizkuntz bilaketa baten bidez. Amaia Ezpeldoi, gainera, lesbiana da eta sexu-norabide aukera librearen aldeko aldarri bat da, mututasunetik plazara.

Testu labur hau Galizako Santiagoko Hotel Rua Villareko gela batean bihikatzen dudana arren ez naiz idazle kosmopolita. Nahiago dut ene burua poeta herrikoi eta herritar soil baten antzera irudikatu. Horrela idazten ditut abestien letrak, ezkontza, urteburu

eta ehortzetarako zortzikoak, artikuluak eta zutabeak. Ahal baldin badut –lanarengatik– eskatzen didaten edozer izkiriitzen dut, eskatzailea edozein dela. Gustatzen zait euskal irakurleekiko hurbiltasuna, ulertzen eta onartzen ez nauten arren beti.

2002an literaturako Euskadi saria ukan nuen %100 *Basque* nobelarentzat. 2010ean Argia saria Berriako Bira deituriko ekina-
rentzat eta urte berdinean idazle gisa Rosalia de Castro izeneko
Konpostelan.

Katedraleko zeinuek hamarrak jotzen dituzte sakon.

Itxaro Borda



ISAAC XUBIN (A Coruña, 1978)

Filologia Galega eta Euskal Filologiako ikaslea. Literatura lan lan gehienak poesiaren alorrean egin ditu, hala nola, *Elementos de Matemática* (1. saria Vigoko Unibertsitateko Literatura Lehiaketan, 2002), *Apoloxía de Antígona* (1. akzesita Vigoko Unibertsitateko Literatura Lehiaketan, 2006), “Danny Boy” poema *Xuro que nunca volverei pasar fame* (Redes Escarlata, 2003) liburu kolektiboan eta *Marcha Orión camiñando cego contra o leste* (Redes Escarlata, 2010). Ipuingintza ere landu du, eta oraindik orain *Vocabulario galego-euskara* eta *Euskara. Guía de conversa* (2010) argitaratu du Vigoko Unibertsitateko Hizkuntz Normalkuntzako Zerbitzuaren bitartez.

PAU JOAN HERNÁNDEZ (Bartzelona, 1967)

Oso gaztetatik ekin zion literatura idazteari, batez ere gazteentzat. Argitaratu zuen lehen gazte eleberria *Tot et serà pres* izan zen. Handik aurrera tematika fantastikoko idazlanak argitaratu zituen, hala nola, *El presoner del casal del diable* (2002), *El mussol i la forca* (2004), *La tripulació del pànic* (2004) eta *L’ombra del Stuka* (2009). Katalanerako itzulpen ugariren egilea da, eta euskaratik, besteak beste, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* eta *Gizona bere bakardadean*, Joan Mari Irigoienek *Babilonia*, Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*, Kirme Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* eta J.K. Igerabideren, Mariasun Landaren eta P. Zubizarretaren haur literaturako obra asko.

HAIZEA PAROT (Baiona, 1984)

Ikastolan eskolatua Batxilergo arte, gero filosofia eta gaztelania ikasi zituen Toulousen. Baionara itzuli zen itzulpengintzan lanean hasteko, eta kurdiar kazetari batekin erreportai ekipoan aritu zen hiru urtez, Parisen, Bruselan eta Hego Ameriketako. Filologiako lizentzia eskuratu zuen Baionako unibertsitatean, eta itzulpengintza

ikasketak ere egin zituen Gasteizko Letren Fakultatean. Euskaratik frantseserako itzulpen askotarikoak egiten ditu, eta sukaldaritzari buruzko bi liburu itzuli du frantsesera: *Soirée tapas* eta *Cuisines du monde en Pays Basque*. *Euskal herria*. Bestalde, *Historia kondatzen duten 40 tokiak* liburuaren itzultzailea ere bada. Poesia zale, literatura itzulpengintzan lantegi hau izan du lehen esperientzia.

MANU LÓPEZ GASENI (BILBO, 1961)

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da. Haur eta gazte literaturaren eta itzulpengintzaren arteko harremanak aztertu ditu: *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura* (2000), *90eko hamarkadako euskal haur eta gazte literatura* (2005), *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* (2005), *Literaturak umeei begiratu zientean* (2006), *Mozorroa ispiluan* (2008). Horretaz gain, haur eta gazte literaturako idazle eta itzultzailea da.

